

TURISMO TEKNIKARIA HAUTATZEKO PROZESUA

BEHIN BETIKO EMAITZAK, IZENDAPENA ETA LAN-POLTSA

BEHIN-BEHINEKO EMAITZEN AURKAKO ERREKLAMAZIOAK ETA BEHIN BETIKO EMAITZAK

Epaimahaiak merezimenduen balorazioaren behin-behineko emaitzen aurka aurkeztutako erreklamazioa aztertu ondoren, behin betiko emaitzak onartu ditu. Epaimahaiak erabaki du erreklamazioa ez onartzea eta 2019-01-11n onartu eta argitaratu zituen behin-behineko emaitzak berrestea. Erreklamazioa aurkeztu duen hautagaiari erabakia idatziz jakinaraziko zaio.

Horrekin batera, Epaimahaiak proposamena egin dio Udal Elkarteko Lehendakartzari behin betiko emaitzak onartzeko, puntu gehien eskuratu dituen hautagaia bitarteko funtzionario izendatzeko eta lan-poltsa eratzeko.

LEHENDAKARITZAREN EBAZPENA B19/0008, 2019-01-17KOA.

44164039Z HAUTAGAIA BITARTEKO FUNTZIONARIO IZENDATZEA, TURISMO TEKNIKARIAREN LANPOSTUA BETETZEKO.

Urola Kostako Udal Elkarteak turismo teknikariaren lanpostua bitarteko funtzionarioaren izendapenaren bidez betetzeko hautaketa prozesua bideratu du. 2018-11-06ko B18/0095 zenbakiko lehendakariaren ebazpenak hautaketa prozesuaren oinarriak onartu eta deialdia egin zuen. Horren ondotik, eskabideak aurkezteko epea amaitu, onartuen eta baztertuen zerrendak onartu eta argitaratu eta hautaketa-prozesuaren espedientea Epaimahaiaren esku geratu zen, oinarrietan zehaztutako oposizio-lehiaketa bideratzeko. Epaimahaiak oposizio eta lehiaketako faseak amaitu eta kalifikatu ondoren, egin du turismo teknikaria izendatzeko proposamena, 2019ko urtarrilaren 17ko aktan jasota datorrena.

Hortaz, Epaimahaiaren proposamena kontuan hartuta, legeek ematen dizkidaten eskumenen bidez, nik, Urola Kostako Udal Elkarteko lehendakariak, honakoa ERABAKITZEN DUT:

LEHENIK.- Epaimahaiak onartutako hautaketa prozesuaren behin betiko emaitzak onartzea. Hona hemen behin betiko emaitzak:

NAN	1. ariketa	2. ariketa	Merezimenduak	Guztira
44164039Z	29,75	24,00	19,75	73,50
44145144W	30,25	23,25	12,00	65,50
44332325D	28,00	24,75	11,13	63,88
72435811W	28,50	21,00	11,50	61,00
44566986R	17,75	16,50	10,50	44,75

BIGARREN.- 44164039Z hautagaia bitarteko funtzionario izendatzea, turismo teknikariaren lanpostua betetzeko.

HIRUGARREN.- Hautaketa-prozesua gainditu duten hautagaiekin lan-poltsa eratzea, hautaketa-prozesua arautzen duen deialdiko 10. oinarriak zehazten duen eran, hautaketa-prozesuan eskuratutako puntuen hurrenkerarekin, antzeko eginkizunak burutzeko langile premiak betetzeko. Lan-poltsa honek 3 urte egingo ditu indarrean, ebazpen honen datatik kontatzen hasita. Hona hemen lan-poltsa:

NAN	Guztira
44164039Z	73,50
44145144W	65,50
44332325D	63,88
72435811W	61,00
44566986R	44,75

LAUGARREN.- Hautagaiei hautaketa-prozesuaren emaitza jakitera ematea eta izendatutako hautagaiari noiz laneratu behar duen aditzera ematea.

Errekurtsoak

Hori guztia jakinarazten dizut ebazpenaren berri izan dezazun eta dagozkion ondorioak izan ditzan. Era berean jakinarazten dizut administrazio-bidea amaitzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakezula, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duenaren arabera eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen (Herri Administrazioen ohiko Administrazio Prozeduraren Legearen) 114.c) artikuluekin bat etorritz.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, jakinarazten dizugun ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dezakezu akordioa hartu duen organoaren aurrean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita hilabeteko epearen barruan. Hori guztia egin dezakezu lehen aipatutako 39/2015 Legearen 123., 124. eta horiekin bat datozen artikuluen arabera.

Zarautz, 2019ko urtarrilaren 17a



Izaskun Altuna Mariezkurrena
Urola Kostako Udal Elkarteko idazkari-kontuhartzailea